



2024 MEMORIA

AURKIBIDEA

1	NOR GARA?	3
2	GAUDE ZENBAKITAN	4
3	BABES—EREMUAK	5
	Laguntza-magnitudeak	5
	Familiak	6
	Psikologia	6
	Eguneko Arreta Zentroak	7
	Zentro okupazionalak	8
	Etxebizitzak	9
	Prestakuntza eta enplegua laguntzarekin - civis	10
	Aisialdia	11
	Boluntariotza	12
4	PROIEKTUAK	13
	Zahartze aktiboa - BIZIKI	13
	Bizi-proiektuak Bizitza independentea	14
	“Sare berdeak ehuntzen” hiri-biodibertsitaterako interpretazio-zentroa	14
5	KONPROMISOAK	15
6	2024AN...	16
7	GURE ERAGINA	17
8	ALIA NTZAK	18

1 NOR GARA

DUINTASUNA ERAKITZEN

2024
MEMORIA

● Zeregina


“Konpromiso etiko batetik, laguntza eta aukerak emanda, adimen desgaitasuna duen pertsona bakoitzak eta haren familiak bizi-kalitateko euren proiektua garatzeko aukera izan dezaten laguntzea, bidezkoagoa eta solidarioagoa den gizarte batean eskubide osoz herritar gisa gizarteratzea sustatuta”.



● Ikuspegia

Pertsona bakoitzak eta bere familiak zentzuzko bizitza lortze aldera, gizartean oso-osorik murgilduta, lortze aldera aukerak sortzen dituen eta gizarte etikoari balioa ematen dion erakunde bat gara.

● Gobernu-organoak



*adimen desgaitasuna duen pertsona

2 GAUDE ZENBAKITAN

2024
MEMORIA

● Pertsonen zifra nagusiak



306

pertsona eta
haien familiak



140

profesional



64

boluntario



400


bazkide



+145

laguntzaile

● 2023 - 2024ko datu ekonomikoak



3 BABES—EREMUAK

2024
MEMORIA

● Laguntza-magnitudeak

EMAKUMEAK GIZONAK

Eguneko Arreta

Andra Mari E.Z.*	67		14
Barrika E.Z.	91	2	21
Monte Ikea E.Z.	9	3	12

Ocupazionala

Donibane Z.O.*	40	29	69
Mendiondo Z.O.	16		18

Etxebizitza

Vivienda Belauste	10		10
Vivienda Gobela	8		8
Vivienda Santa Ana	8		8

CIVIS

Lan - Prestakuntza	36	26	62
Lan - Orientazioa	30	32	62
Enplegua laguntzarekin - Prestakuntza	19	15	34

Ocio

	69	112	181
--	----	-----	-----

*Eguneko Zentroa. **Zentro okupazionala.



● Familiak

Zer egiten dugu?

Familia guztiei ematen diegu laguntza, babesarekin eta aukerekin, eta familiaren bizitza-kalitatea eta kide bakoitzaren ongizatea hobetzen saiatzen gara. Familia gisa dituen indargu-neak garatzen laguntzen dugu, eta, horrela, gaitasun- eta bizitzaren gaineko kontrol-sentimendua handitzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?

INFORMAZIOA

- Prestazioak
- Ingurune baliabideak
- Balorazioa Mendekotasuna
- Aldi baterako egonaldiak eta egonaldi iraunkorrak

AHOLKULARITZA JURIDIKOA
Gordoniz Abokatuak
Bufete Gordóniz Abogados

Aldi baterako egonaldietarako etxebizitzak
ZUAZO ETXEA
68 egonaldi
223 gauraldi

FAMILIA-TALDEAK:
Helduarora igarotzean laguntzeko laguntza-taldea
"Pintxoak baino zerbait gehiago" taldea
35 familiakide

ELKARTEGINTZA

82 pertsona San Juan eguneko bazkarian


144 pertsona gabonetako bazkarian

● Psikologia

Zer egiten dugu?

Pertsonei eta senideei laguntzen diegu bizitzako etapa eta egoera desberdinetan. Gaudela barneko eta kanpoko laguntza-sarea osatzen duten profesionalekin ari da elkarlanean eta haiekin koordinatzen da. Oinarrizko eskubideen errespetua eta eredu etikoan oinarritutako bizimodu duina sustatzen ditu.

Zer nabarmentzen dugu?



● Eguneko arretarako zerbitzua

Zer egiten dugu?

Komunitatean erabat parte hartzeko eta modu globalean garatzeko aukerak sorrarazten lagundu eta babesten ditugu. Bereziki parte hartzearen, gizarteratzearen eta eskubideen esparruak nabarmentzen ditugu. Pertsonak haien bizitzak kontrolatzen dituztela sentitzea sustatzen duten gaitasunak garatzea bultzatzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?

SUSTAPENA ETA LOTURA INGURUNEAREKIN

- Herritarrei egindako proposamenetan parte hartzen dugu, udalekin harremanetan.
- ASpaceko emakumeekin esperientziak partekatzen ditugu eta M8aren harira gure udalek antolatutako elkarretaratzeetan parte hartzen dugu.
- Ingurumena zaintzearekin lotutako jardueretan parte hartzen dugu: mikroplastikoak bildu, energia aurrezteko eta birziklatzeko konpromisoa hartu, etab.
- Ate irekien jardunaldiak egiten ditugu.
- Inguruneke Bigarren Hezkuntzako Institutuak (BHI) bisitatzen ditugu.
- Gureko Berritzegunea osatzen duen taldeari harrera egiten diogu.
- Gabonetako apaingarrien lehiaketan parte hartzen dugu, Gorrizen.
- EITB Maratoian parte hartzen dugu.

GIZA GARAPENA

Bizitzako hainbat arlotan pertsonak babesten ditugu beren **interesa eta lehentasunekin** bat datozen ekintzak egiten dituzten artean.

- **Komunikazioa:** espazioak handitzen ditugu erabakiak hartzerakoan pertsonak modu aktiboagoan jardun dezaten.
- **Aisialdia:** denbora librean gozatu ahal izateko jarduerak sustatzen ditugu, hala nola artisautza-jarduerak, sukaldaritzako errezetak egitea, aldizkari bat sortzea edo kirola egitea.


FAMILIEKIN PARTEKATU

2024an familiek eguneko zentroetan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko jarduerak gehiago egin dira hainbat kanalen bidez:

- Eguneko zentroen batzordeak: adimen urritasuna duten pertsonak, beren senideekin eta zentroko profesionalekin batera, ezagutzak partekatu dituzte eta erabakiak hartu dituzte zerbitzua hobetzen laguntzeko.
- Familiek jardueretan parte hartzea: espazioak modu aktiboan partekatzen dituzte sukaldaritzako tailerretan, ekitaldiak egiten eta azpiegiturak hobetzeko baliabideak bilatzen.

“Barrikan nire ikaskideekin musika entzuten egotea gustatzen zait. Gainera, gustuko dut auzoan zehar furgoneta berria gidatzea eta prestatzen dugun janaria duguna dastatzea”

Argiñe López



“Eguraldia ona denean, asko gozatzen dut irteerak egiten ditugunean. Zentroan asko gustatzen zait osasun eta ongizate tailerra.

Gustuko dut furgonetan igerilekura joan eta bertan zerbait hartzea”

Zigor Goikoetxea

GORLIZ

BARRIKA

MONTE
IKEA

● Zentro okupazionalak

Zer egiten dugu?

Zerbitzu honen xede nagusia pertsoneri laguntza integrala ematea da, lanerako gaikuntzarako eta egokitze pertsonal eta sozialerako programak garatuz, garapen pertsonalaren maila handiagoak lortzeko helburu nagusiarekin. Horrela, pertsona bakoitzak bere bizi-kalitatea hobetu ahal izango du, pertsonak ahalik eta bizitza autonomoena egin ahal izateko beharrezkoak diren laguntzak eskainiz.

Zer nabarmentzen dugu?

Gure helburua pertsona bakoitzaren gaitasunekin eta lehentasunekin bat datozen ikaskuntza funtzionalak sustatzea da eta, **horretarako, honako jarduerak hauek jarri ditugu abian:**

INGURUMENA	NEGUTEGIA	IRTEERAK	JAIK	ERLAXATIOA
ANIMALIZ LAGUNDUTAKO TERAPIA	BRIKOLAJEA	SUKALDEA	TARTE ONA IGAROTZEKO TAILERRAK	BERDINTASUNEN PRESTAKUNTZA
ZENTZUDUN LIBURUAK	PULTSERA SOLIDARIOAK	DANARI AURRE EGITEKO MATERIAL BILKETA	SARE BERDEAK EHUZTEN PROIEKTUA	YOGA

Gure lan-jarduerak hainbat enpresarekin elkarlanean garatzen dugu, azpikontratazio erregimenean, batik bat elektronikaren sektorearekin lotutakoekin.



“Asko gustatzen zait tailerrera etortzea eta lan desberdinak egitea. Negutegian ere laguntzen dut.

Batzuetan irteerak egiten ditugu zentrotik eta leku berriak ezagutzen ditugu”

Aitzol López

EGOKI PLANA:

Proiektu hau okupazio-zerbitzuan zahartzen ari diren edota okerrera egiten ari diren pertsoneri zuzendutako laguntza-eredu biziagoa da. Prozesu osoan laguntzen diegu pertsonari eta haren familiari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren laguntzari esker.



DONIBANE

MENDIONDO

“Nire ustez, Donibanera etortzea baliagarri sentitzea da, gustatzen zaizkidan gauzak egitea eta lagunekin egotea”

Eva Morras



● Etxebizitzak

Zer egiten dugu?

Pertsonei beren bizi-proiektua garatzen laguntzen diegu, beren nahiak eta interesak beteaz. Pertsonen trebetasun funtzionalak babesten ditugu beren hazkunde pertsonalean lagundu ahal izateko, komunitatean barne hartuta dagoen etxe batean bizitzeari esker.

Zer nabarmentzen dugu?

BIZITZA PERTSONALAREN ETA ETXKO BIZITZAREN ALDERDIETAN PARTE HARTZEA

Pertsonen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzen dugu eta ikaskuntza funtzionalak sustatzen ditugu beren bizitzako alderdi esanguratsuetan:

- Medikazioa kudeatzea eta etxeko lanak egitea.
- **Hilero batzarrak** egitea bizikidetzari buruzko alderdiak erabakitzeko.

"ERDIAN GAUDE" METODOLOGIA

Berriro jarri dugu martxan pertsonei beren kezka, interes eta desio pertsonaletan laguntzeko metodologia, beren bizi-proiektuari dagokionez, senideen parte-hartzea barne hartuta.

KIDE BERRIAK

Ongietorria egin diegu hiru kide berriri: Horietako bati Belausten eta beste biei Gobelan.

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA

- Espazio publikoak gehiago erabiltzearen aldeko apustua egin dugu, herritarrekin batera, horiekin partekatzen baitugu udalerria. Komunitatean inklusioa bultzatu nahi dugu: Kiroldegiak, boluntarioak, kultura etxeak...
- Gertuko udalerriak bisitatu ditugu, gure ingurunea ezagutzeko: Donostiako akuaria, Zugarramurdiko haitzuloak, Kantabria eta bere herriak, Burgos...

BEALUSTE

GOBELA

SANTA ANA

“Ikaragarri gustura nago Santa Anako pisuan. Ondo pasatzen dut lagunekin eta begiraleekin jarduerak egiten; sukalde-tailerrean parte hartzea, zerbait edatea, jatetxeetara bazkaltzera joatea...

Herritik paseatzea eta puntua egitea gustatzen zait. Manta bat egin dut nire ilobarentzat, bufandak...”

Itziar Unanue



“Gobelako etxebizitzan bizi naiz. Laster urtebete beteko dut bertan. Oso gustura nago. Etxeko lan batzuk egiten ikasi dut. Gauza ugari egiteko gai naizela ohartu naiz. Gainera, postreren bat egiten ere ikasi dut begiralearen laguntzarekin. Kideekin ondo konpontzen naiz”


David González

● Prestakuntza eta Enplegua Laguntzarekin CIVIS

Zer egiten dugu?

CIVISek enplegarritasuna hobetzearekin zuzenean lotutako eskumen gehiago garatzen eta sustatzen laguntzen du, laneratzeko aukerak areagotzen lortzeko.

Zer nabarmentzen dugu?



Enpresa laguntzaileak

ENPLEGU LAGUNDUAN




PRAKTIKETAN

dauden ikasleentzako enpresa laguntzaileak



"Diploma gustatzen zait, gauza asko ikasten ditudalako eta onena da lan-praktikak egin ditzakedala"

Jaime Martín



"Plaza bat lortu dut Getxoko Udalean eta bizimodu lasaia eta kezkarik gabea izan dezaket"


Johana Ibaibarriaga

● Aisialdia

Zer egiten dugu?

Aisialdi Zerbitzuan, pertsonen beharrezkoak dituzten baliabideak eta laguntzak eskaintzen saiatzen gara, aisialdi indibidual eta partekaturako eskubidea gainerako komunitatearen baldintza berberetan jardun ahal izan ditzaten, gizarteratzearen eta pertsona orientazioaren printzipioak gidatuta.

Zer nabarmentzen dugu?



"Irakurketa klubean parte hartzea gustatzen zait istorioak irakurriz gozatzen dudalako. Gero horiek ikaskide guztien artean komentatzen ditugu"

Mikel Cepeda



"Entrenatzaile boluntario gisa laguntzen dut Emakumezkoen Futbol Taldean. Entrenatzailearen eta nire artean entrenamenduak prestatu eta ematen ditugu. Pozik nago nire herriko taldean parte hartzen dudalako eta neskekin entrenamenduak partekatzen ditudalako"

Nekane García

● Boluntariotza

GAUDEn, boluntariotzan sinesten dugu aldaketarako eragile gisa.

Boluntarioak funtsezko zutabeak dira. Jarduera asko ez lirateke posible izango haiek gabe.

Aurten 64 **parte-hartzailek** lagundu dute, honako hauetan:



GAUDEko boluntarioek honako hauetan hartu dute parte:

OPORRAK

AISIALDIA
NEURRIRA

INGURUMENA



KIROLA

EGUNeko
IRTEERAK

KULTURA-
EKINTZAK

Sarekideren Zuzendaritza
Batzordeko kide gara



BForoaren kide gara,
"BizkaiaGara"rena



“Eskerrak eman nahi dizkiet GAUDEko nire ikasleei astero aukera ematen didatelako beren umore onaren, grinaren eta borroka nortasunaren lekuko izateko zailtasun askoren aurrean, nire ama hizkuntza barne. Inspirazio hutsa dira”

James Cavaliero
The Talking Point akademia



“Nire esperientziarik onenetarikoa. Ikastea, gozatzea, ulertzea, konfiantza eta enpatia dira modu altruistan partekatzea laburbiltzen dutenak”

Noelia de Castro



4 PROIEKTUAK

2024
MEMORIA


● Zahartze aktiboa - BIZIKI



Zer egiten dugu?

Bizikik adimen- urritasuna duten 50 urtetik gorako pertsoneri eta haien familiei ematen die laguntza, bizi oso batez goza dezaten zahartze aktibo eta osasuntsu batean.

Zer nabarmentzen dugu?



Komunitate-jarduerak

2024KO TAILERRAK/JARDUERAK

KOKAPENA

Informatika	CEPA LEIOA - ERANDIO
Estimulazio kognitiboa	NAGUSI RKE (GETXO)
Boluntariotza animaliekin	APASOS BILBAO
Bizitza eta zahartze osasuntsua	NAGUSI PINUETA (LEIOA)
Zineadin	NAGUSI RKE (GETXO)
Kontaidazu argazki hau	NAGUSI RKE (GETXO)
Hitzaldiak: "Zahartze osasuntsua"	NAGUSI RKE (GETXO)
Kultur-irteerak	CEPA LEIOA - ERANDIO



"Biziki programan egiten ditugun jarduera guztiak gustatzen zaizkit, oso entretenigarriak dira. Gainera, oso gustura nago ikaskideekin, oso atseginak direlako"

Paquita Álvarez

"Biziki gustatzen zait etortzea, "burua" lan dezadan bilatzen dutelako"

Fran Reyes

● Bizi-proiektuak Bizitza independentea

Desgaitasun intelektuala duten eta familiaren etxetik kanpo modu independentean bizi diren pertsonen laguntzen diegu, beren desioen, jomugen eta lehentasunen arabera. Pertsonen eguneroko erabakiak hartzen laguntzen diegu eta horrek bizimodu independentea izan dezaten ahalbidetzen du (aurrekontu pertsonala kudeatzea, etxea garbitzea, eguneroko menua egitea, etab.).

“Askeago sentitzen naiz independizatzean, horrela helduen bizitza egin dezakedalako eta ni neu nire gastuez arduratu naitekeekako”

Katherine Vela

2024an
5 pertsonak
hartu dute
parte bizitza
independentearen
programan.

“Bizimodu
independenteak
askatasuna eta dirua
kudeatzen ikastea
esan nahi du”

Aritz López

● Sare Berdeak Ehuntzen proiektua

Donibane zentro okupazionalak 2.000 m² inguruko berdegunea du, hiriko biodibertsitatea kontserbatzeko eta interpretatzeko lorategi bihurtu duguna.

Adimen desgaitasuna duten pertsonen eta zentroko begiraleek kudeatzen dute gune hori, SEO BirdLife argitalpenaren gomendioei jarraituz: “hiri-inguruneetan biodibertsitatea kontserbatzeko 100 neurriak”.

Proiektua Donibanetik haratago hedatzen da eta ikastetxeekin, hirugarren sektoreko erakundeekin eta udalekin sare handi bat sortzea ahalbidetzen du.



IKASTETXEETATIK LH ETA
DBHKO IKASLEAK ETORTZEN
DIRA BISITAN

500 BISITATIK GORA
URTEAN

ELKARLAN SARIA
EUSKO JAURLARITZA

Jardunbide
egokiak ikastetxeei
dagokienez.

ASTEKLIMA SARIA
ENERGIAREN EUSKAL
ERAKUNDEA

Aintzatespena
ingurumena
zaintzeagatik.

Zer egiten dugu?

Lorategia inausketa
natural eta
birsortzailearen
irizpideekin
kontserbatzetu.

Inguruko
flora
autoktonoa
zaindu eta
kontserbatu.

Inguruko hegaztiak eta
migratzaileak zaindu
eta katalogatzen.
Elikadura urteko
eskasia garaietan.

Intsektuen
hotela.

Sugandilentzako
arrokailea.

Urmael
bat
sortu.

Belar
aromatikoak
landu eta
zaindu.

Tximeleten
oasia.

Udaberrian
belarra
moztea
murriztu.

5 KONPROMISOAK

2024
MEMORIA

● Berdintasunarekin konprometituak

Berdintasun-plana

Aurrera jarraitzen dugu elkarteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planean. Prestakuntzak egiten ditugu langileentzako prebentzio eta jarduketa protokoloaren baitan, bai eta sexu jazarpenean, genero ikuspegia barne hartzen dituzten hautaketa prozesuetan, hizkuntza inklusiboa, etab.



Emakumeentzako espazioak sortzen jarraitzen dugu

EMAKUMEEN TALDEA



Martxoak 8 eta azaroak 25

Komunitateko jardueretan parte hartzen dugu: Martxoaren 8an (Emakumearen Nazioarteko Eguna) eta azaroaren 25ean (Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna).



PAELLAS CON VOZ

BETIKO NESKAK FUTBOL TALDEA



● Konpromisoa euskararekin

Euskalduntzeko plana

GAUDE euskalduntzeko planarekin aurrera jarraitzen dugu (kartelak, komunikazioa, protokoloak, euskara batzordea, berbalagun...)

EUSKARALDIA



KORRIKA



BERBALAGUN TALDEA



● Gizartearekin konprometituak

DANARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA



AZOKA SOLIDARIOAK



ELIKAGAIEN BILKETA



SENTSIBILIZAZIO-HITZALDIAK



SAREKO LANA



Eraldatuz
RED DE PERSONAS PARA EL CAMBIO SOCIAL

HONDARTZEN GARBIKETA

6 2024AN...

2024
MEMORIA



Barrika Eguneako Zentroak **XVII DEIA Laboral Kutxa Hemendik Sariak** jaso ditu.



ONCE Euskadik eman digu **Urrezko Kaskabiloa saria**.



Elkarlan saria
Eusko Jaurlaritza
Jardunbide egokiak ikastetxeei dagokienez.



Asteklima saria
Energiaren Euskal Erakundea
Aintzatespena ingurumena zaintzeagatik.



Ekinaren astearen XL Aipamen Berezia, Eusko Jaurlaritzaren Aztertu programaren barruan.



Aintzatespena berdintasunaren aldeko lanagatik. Laket-Emakumeak ahalduntzeko eskola, Leioan.



Futbol 7ko txapeladunordeak: **Donosti Cup**.



Athletic Klubeko jokalarien harrera Gabarran.

7 GURE ERAGINA

2024
MEMORIA

● Gure jardueraren inpaktu globala garapen jasangarrirako helburuen bidez (GJH)

2030 Agendak GJHak ditu nazioarteko eskalako adierazle gisa, eta, bertan, pertsona eta erakunde guztiok laguntza emateko aukera dugu. Hainbat arlo lantzen dituzten 17 helburu dira.

Elkartearen jarduera globalak, batik bat, GJH horiei laguntzen die, 2024ko memoria honetan erakutsi diren jarduera-eremuen bidez.



● Proiektuen eragin-ebaluazioa Zuazo Etxea

Carmen Gandarias Fundazioaren finantzaketari esker, “Casa Zuazo” Aldi Baterako Egonaldietarako Etxebizitzaren eraginaren ebaluazioa egiten ari gara, Sinnple ere finantzaketan lagun dugula, gai horretan laguntza ematen espezializatuta baitago.

Prozesu horretan identifikatu dugu, 2023an zein 2024an, proiektu honek eragin berezia duela honako hauetan:

Senideei dagokienez:

- Ongizate emozional handiagoa
- Autoestimu handiagoa
- Familia, gizartea eta lana kontziliatzea sustatzea.
- Familia barruko harremanak hobetzea.
- Laguntza-sare egonkorra finkatzea

DATUAK

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **norberaren zaintzan** (norberarentzako aisialdia eta aisia, nagusiki).

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **atsedenean**.

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **gizartearen eta familiaren oreka** errazten du.

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen dagokienez:

- Duintasun-zentzua hobetzea (nabaritutako errespetua eta bizitzako hainbat alderdiren gaineko kontrolaren pertzepzioa).
- Familiarengandik aparte bizitzeko aukerarekiko konfiantza handitzea.

DATUAK

Desgaitasuna duten pertsonen % 100ek uste du **errespetuz tratatua izan dela** Zuazo Etxean egotean.

Desgaitasuna duten pertsonen % 80k uste du Zuazo Etxean egon bitartean **hainbat egoeratan eragiteko ahalmena dutela**.

Administrazioari dagokionez:

- Kostua aurrezteko egoitza-egonaldi iraunkorren eskaera txikiagoagatik.



ALIA NTZAK

2024
MEMORIA

145 erakunde kolaboratzaile baino gehiagoko sarea daukagu, eta horien artean geu nabarmentzen gara:



